

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2023-2024 denboraldia
(2023ko urriaren 2tik 2024ko irailaren 29ra)

19. astea (2024ko maiatzaren 6tik 12ra)

COVID-19aren diagnostikoek gora egiten jarraitzen dute. Bestalde, gripe-birusaren zirkulazioa eta bronkiolitisaren diagnostikoak balore baxu eta egonkorretan mantentzen dira.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 293,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (249,2/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen eta bronkiolitisaren tasak nahiko egonkor eta balio baxuetan mantentzen dira.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 46 lagin jagoleen % 50,0 baieztatu da, 4 SARS-CoV-2 (positibotasuna % 8,7) atzeman delarik. Ez da gripe-birusik ala ABSik detektatu, baina bai 11 errinobirus eta 5 parainfluenza birus.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 10,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (9,9/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sistemari, aste honetan, 94 SARS-CoV-2, 11 gripe-birus eta ABS bat erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 293,0 kasukoa izan da (249,2/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 232,2/100.000 izan da Araban, 300,6/100.000 Bizkaian eta 308,8/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 1229,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urteko adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 357,6 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute adin-talde guztietan, 5-14 urteko taldean izan ezik.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta ia ESI guztietan.


AIaren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 19. astea	Tasa 18. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Arabako ESI	253,6	145,4	1,74 (1,55-1,96)
Arabar Errioxako ESI	392,0	298,2	1,31 (0,85-2,04)
Barakaldo-Sestaoko ESI	287,9	216,1	1,33 (1,14-1,56)
Barrualde-Galdakaoko ESI	304,5	297,0	1,03 (0,94-1,12)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	332,3	307,8	1,08 (0,99-1,17)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	333,6	296,3	1,13 (1,00-1,27)
Uribeko ESI	206,4	185,8	1,11 (0,97-1,27)
Bidasoako ESI	259,6	228,4	1,14 (0,93-1,39)
Debararrenako ESI	333,4	350,2	0,95 (0,80-1,14)
Debagoienako ESI	215,8	179,8	1,20 (0,94-1,54)
Donostialdeako ESI	294,3	241,8	1,22 (1,11-1,33)
Goierrri-Urola Garaiako ESI	372,0	287,4	1,29 (1,11-1,51)
Tolosaldeako ESI	332,9	284,7	1,17 (0,96-1,42)

Gripe-sindromearen tasa aste honetan 1,3 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (0,9/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 124,8 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (100,5/100.000 aurreko astean).


**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE**



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAREN sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIARako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 46 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 50,0 baieztatu dira. 4 SARS-CoV-2 atzeman dira eta ez gripe-birusik ala ABSik. 11 errinobirus eta 5 parainfluenza birus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoaren arabera. 2023-2024, EAE



Hiru arnas-birus nagusien, SARS-CoV-2, gripe-birusa eta ABS, positibotasunak egonkor daude % 10etik beherako balioetan (% 8,7, % 0,0 eta % 0,0, hurrenez hurren), baina SARS-CoV-2ak goranzko joera du azken asteetan. Errinobirusaren positibotasuna % 23,9koa izan da (% 30,8 aurreko astean) eta parainfluenza birusarena % 10,9koa (% 7,7 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	19. astea		18. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	0	0,0	0	0,0	242	15,7
SARS-CoV-2	4	8,7	2	7,7	82	5,3
ABS	0	0,0	0	0,0	91	5,9
Metaneumobirus	1	2,2	2	7,7	99	6,4
Parainfluenza	5	10,9	2	7,7	53	3,4
Adenobirus	1	2,2	0	0,0	37	2,4
Errinobirus	11	23,9	8	30,8	308	20,0
Urtaroko CoV	1	2,2	4	15,4	95	6,2

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorzen direnak. AIAL tasa 10,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (9,9/100.000 aurreko astean), 9,6/100.000 emakumeetan eta 11,6/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 33,4 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 12,9 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute 5 urtetik beherakoetan eta 64 urtetik gorakoetan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birologikoen emaitzak erakusten dira. Hiru arnas birus nagusien positibotasuna % 10aren azpitik mantentzen da modu egonkorrean, baina SARS-CoV-2ak goranzko joera du azken asteetan. Aste honetan gripe-birusaren positibotasuna % 0,7koa izan da (% 0,0 aurreko astean), SARS-CoV-2arena % 7,2koa (% 6,9 aurreko astean) eta ABSrena % 0,9koa (% 0,0 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	19. astea		18. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	152	7,2	131	6,9	8127	8,5
Influenza	135	0,7	122	0,0	7606	15,9
ABS	106	0,9	92	0,0	6356	12,5

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE




Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 94 SARS-CoV-2, 11 gripe-birus eta ABS bat detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 11 gripe-birusetatik, 2 A(H3) azpimotakoak izan dira, bat A(H1)pdm09 eta 8 B motakoak. 2023/40 astetik 6126 detekzio erregistratu dira, 6084 (% 99,3) A motakoak eta 42 (% 0,7) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1867 birusetatik, 443 (% 23,7) A(H3) eta 1424 (% 76,3) A(H1)pdm09 izan dira.

Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, apirilean, PCR bidez aztertutako SARS-CoV-2ren lagin positiboen % 30,0 sekuentziatu dira orain arte. Guztiak Omikron aldaerakoak izan dira, leinu ohikoenak JN.1 (% 45,5), XDK (% 21,2) eta KP.3 (% 12,1) izan direlarik.

Asteako SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 19. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 8,4 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (7,1/100.000 aurreko astean); 8,6 gizonetan eta 8,4 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 31 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (24 ospitaleratu aurreko astean), 16 gizon eta 15 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 96,8 60 urtetik gorakoa izan da.

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoen eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

Urteko 19. astean, 3 COVID-19 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (2 aurreko astean). Kasuak izan dituen zentro soziosanitario kopurua ere 3 izan da.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko maiatzaren 15ean

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**